

Erlatibismoa

Erlatibismoa

Elkarri buruz definitzen dira erlatiboa eta *absolutua: elkarren kontrako bezala. Beste zerbaiti begira eta ez bere baitan hartzen den edozer da erlatiboa, beraz. Eta "absolutua" hitzaren esangura desberdinei buruz-buruko guztiak ditu "erlatiboa" hitzak ere: metafisika mailakoa, *ezagutza edo epistemologia mailakoa eta balio edo axiologi mailakoa.

Erlatibismoa, sistema filosofiko bezala aipatzen dugunean, berriz, epistemologiaren eta axiologiaren mailan ikusten da.

1. Egiaren erlatibismoa edo erlatibismo epistemologikoa

Ezagutza berez da erlatiboa, hots, zerbaiten --objektuaren-- ezagutza. Baina ezagutzaren erlatibotasuna esaten denean aurrekoaren ia kontrako ideia adierazi nahi da: hau da, ezagutza ez dagoela objektu objektiboaren baldintzapean, eta bai subjektuaren eta beronen inguruaren baldintzapean. Pentsabide hau jeneralitzen edota erabatekotzat hartzen bada, erlatibismoaz mintzatzen ari gara. Zera irakasten du, bada, erlatibismoak: ezer ez dela erabat egia, eta bakoitzaren banakotasunaren eta horren egoeraren arabera ezagutzen dela edozer. Ez dago, beraz, egia zein den esateko arau eta erizpide objektiborik eta erabatekorik: objektua bera ez da egiaren erizpide erabatekoa, ezagutzaren arabera aldatzen bait da. Ez dago, beraz, denok eta beti onartu beharreko egia-rik.

Ez da benetako erlatibismoa --edo erlatibismo mugatua besterik ez da--, objektuaren arauemaitetza onartuz, subjektuaren banakotasunak eta inguru kulturazkoak ezagutza baldintzatu egiten dutela esaten duena.

Hiru eratako erlatibismo epistemologiko bereiz daitezke: *subjektibismoa, *historizismoa eta *antropomorfismoa. Azken biei oso loturik doa, hain zuzen ere, erlatibismoa: Gizakiaren arabera ezagutza eta egia adierazten ditu antropomorfismoak; historizismoak, berriz, garai edo herri edo gizatalde bakoitzari dagokion ezagutza eta egia desberdinak direla baieztatzen du.

2. Balorearen erlatibismoa edo erlatibismo axiologikoa

Erlatibismo moralak edo etikoa ere deitu ohi da. Garai eta leku guztietako gizaki, herri edo gizatalde guztientzako baliozkoa den *balorerik eta araurik badela onartzen ez denean, horrelako erlatibismoa daukagu.

Hemen ere badago erlatibismo erabatekoa edo osoa, batetik, eta erlatibismo mugatua, bestetik. Bigarren horren arrazoizkotasuna

naharmen jarri du *Antropologia kulturalak. Eta printzipio filosofiko baino gehiago azterketa positibo eta konparakorraren ondorioa besterik ez da. Antropologia kulturalak balore-sistema desberdinak aurkitu ditu, eta ez derrigorrez eboluzio-teoriaren bidez ulertu beharrekoak.

Giza izaera jatorrizkotik erakarritako balore unibertsalak ukatzen ditu erlatibismo filosofikoak. Erlatibismo antropologikoak, berriz, etnozentrismoa ukatzen du, Europakoa nahiz Mendebaldekoa izan; etnozentrismoak nolabait giza izaera unibertsaltzat hartzen bait du etnia jakin baten kultura.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Absolutua, Zera.

Erlatibitatearen teoria

Einstein-ek oinarritutako teoria fisikoa da. Teoria honek, batetik, *espazioaren, *denboraren eta mugimenduaren arteko lotura eta, bestetik, grabitazio-teoriari dagokionez, espazioaren egitura metrikoa unibertsoko masa-banaketaren menpean egotea adierazten ditu.

Maxwell-ek elektrodinamikaren mailan egindako azterketek Newton-en mekanikak mugak zituela erakutsi zuten eta harez gero, erlatibitatearen teoriak ezeztatu egin zuen mekanika klasikoa. Argiaren mugimendu iraunkorretik eta erlatibitatearen printzipiotik ondorioztatzen denez, denbora eta hedadura esate baterako, ez dira absolutuak, dimentsio erlatiboak baizik. Espazioaren egiturak ere, berau arlo konkretu bateko masa-banaketaren menpean dagoenez gero, Euklide-ren geometriari baliozkotasun orokorra galeraziz, horren lekuan Riemann-en geometria ez-eukliidiarra onetsiz. Baina teoria honek ez du zerikusirik oro subjektuaren edo iharduera behavioristaren menpean dagoela aldeztatu duen jarrera idealistarekin. Lehengo mekanika eta geometria ere erabil ditzakegu zenbait arlotan, nahiz eta arlo horietarako mugatutak izan. Argiaren mugimendua edota grabitazioa kontuan hartu behar dugun errealitateko eremutan, berriz, erlatibitatearen teoriak baliatzen gara.

Azkenik, maila filosofiko eta kosmologikoan, erlatibitatearen azterketak eta berari lotua dagoen uhin-gorputzulariarenak, oraindik eragin handiko ondoreak edukiko dituztela esan behar dugu, esate baterako unibertsoa bukarora ala bukaezina den galderari dagokionez.

Erlazioa

Sin.: Harremana

Aristotele-k mugatu zuen *kategoria da erlazioa, gauzen artean egindako konparazioa